

DENOK BAT GURASO ELKARTEA

2023-2024ko UPOa (Urteko Plangintza Orokorra)

Idatzi honetan, Denok Bat Guraso Elkarteak 2023-2024 ikasturtean dituen helburuak eta ekintzak jaso ditugu.

2023eko irailaren 19an, Zuzendaritza iazko berdina mantentzen da, eta honako kide hauek osatzen dute Guraso Elkarteko zuzendaritza:

- ❑ **Lehendakaria:** Maider Lopez Lima
- ❑ **Lehendakariordea:** Estitxu Aguirre Del Rio
- ❑ **Idazkaria:** Patricia Vicente Brazete
- ❑ **Diruzaina:** Amaiur Alkain Aldaz
- ❑ **Bokala:** Idoia De Miguel Berasategi

KIDEAK:

- ❑ Patricia Vicente Brazete eta Ángel María Jimenez Bautista
- ❑ Estitxu Aguirre Del Rio eta Arkaitz Genua Mutuberria
- ❑ Eneko Aizagirre Lasarte eta Amaiur Alkain Aldaz
- ❑ Maider Lopez Lima eta Jon Ander Hernandorena Saizar
- ❑ Idoia De Miguel Berasategi
 - Saioa Sagastibeltza Ganboa eta Eneko Otaegi
 - Edurne Noriega Exposito eta Aitor Zubillaga Saralegi
 - Estibaliz Carmona Gutierrez eta Eloy Garrido Sagastibeltza
 - Emilia Carbajo Pinto
 - Ana Curac eta Gheorghe Curac

ORDEZKOAK:

Ainhoa Sagastibeltza Caballero

Aitziber Olano Echavarri eta Miguel Mari Elosegi Irurtia

Bestalde, Guraso Elkarteak hainbat batzorde eta eragile desberdinetan parte hartzen du eta horko ardurak ere banatu ditugu. Nahiz eta ardura hauek horrela zehaztuak egon, edozein momentutan aldatu daitezke bakoitzaren behar eta ordutegiaren arabera:

- Korreoa → Amaiur eta Saioa
- Diruzaintza → Mainer eta Edurne
- Zuzendaritzarekin egiten diren bilerak (hilabetean behin) → Idoia, Mainer eta Emi
- Pesta batzordea → Eneko Aizagirre eta Eloy
- Prebentzio batzordea → Patricia, Idoia eta Emi
- Eskola kontseilua → Estitxu
- Euskara Batzordea → Errotatibo eran izango gara euskal hiztunen artean.
- Berdintasun batzordea → Idoia, Patricia eta Emi
- Osasun batzordea → Idoia, Patricia eta Emi
- Aktak → Amaiur
- Institutoko guraso elkartekin bilerak → Amaiur
- Aretoa hartzeko → Amaiur
- Jantokie → Mainer eta Edurne

1. 2023-2024KO HELBURUAK:

★ 1.1. HELBURU OROKORRAK:

- Guraso eta eskolaren bitartekari-lana egitea.
- Gurasoei laguntza ematea.
- Familien eta eskolaren arteko harremana bultzatzea.
- Gurasoen eta haurren heziketa sustatzea.
- Ikastetxean edo herrian antolatzen diren hezkuntza-jardueretan laguntzea.

★ 1.2. IKASTURTE HONETAKO HELBURUAK:

- ❑ Gurasoen lan-taldeak sortu, familiei kezkatzen dien edozein gai lantzeko.
- ❑ Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean, kanpoko hizkuntza eta kultura duten familienganako hurbilketa egin.
- ❑ Herriko eragileen elkarlanari eutsi: Prebentzio Batzordea, Berdintasun eta Prebentzio Batzordea, Pesta Batzordea, Euskara Batzordea, Osasun Batzordea...

2. 2023-2024KO EKINTZAK:

★ 2.1. PESTA EGUNAK

- ❑ **Udazkeneko festa:** Ohitura zaharrei eutsiz gaiztainak erre, gau beltzako kutsua eman eta udazken giroaz disfrutatu.
- ❑ **Olentzero:** bertako kantak, ohiturak ezagutu eta euskal kultura ezagutzea ditu helburu. Honekin batera, jostailu trukea ere bultzatzen jarraituko dugu, jostailu zaharren bilketarekin.
- ❑ **Ihoteak:** ihoteetan parte hartu eta bertako ohiturak ezagutarazi. Ihoteetan zehar, haur-umeentzako ikuskizun edota tailer bat antolatuko da jai egun horietan.
- **Martxoak 8:** Emakumearen inguruko hausnarketa honetan, ume-haur guztientzako ikuskizun edo tailerren bat antolatu, egun honekiko sentsibilizazio eta hurbilketa moduan.
- ❑ **Eskolen arteko topaketa:** Leitza, Areso eta Goizuetako eskolen arteko topaketan parte hartu, herrien arteko harremana sustatzeko. Ikasturte honetan Aresokoei lagundu beharko diegu.
- ❑ **Krosa eta San Silbestrea:** umeak herriko kirol jardueretan parte hartzera animatu, entrenamenduak eginez eta kiroltasuna sustatuz.
- ❑ **Ikasturte bukaera:** ikasturte amaiera ospakizuna antolatzen lagundu.
- ❑ **Pestetako umeen eguna:** Pesta Batzordearekin elkarlanean, egun hau antolatu.

★ 2.3. GAINERAKOAK

□ **Guraso eskola:** gurasoen intereseko gaiei buruzko hitzaldiak/tailerrak antolatu.

□ **2.LHko igeriketa:** antolatzen bada ordainketan lagunduko da, honetarako

dirulaguntza jasotzen den bitartean.